



JOXE MARI LERTXUNDI

BASO TARTEKO OIUA

BASO TARTEKO OIUA

AUSPOA LIBURUTEGIA

167

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza de Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

JOXE MARI LERTXUNDI

BASO TARTEKO OIUA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1983

Azalean: Laurgain'eko eliza ta ballara.
(Foto A. Z.)

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)
Libro de J. M. Lertxundi
Fotokonposatzalle: Lente – Estella
Imprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN: 84 – 7158 – 110 – 8
Depósito Legal: NA. 755 – 1983
Octubre 1983

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Baso tarteko oiua	13
Amaren ondoan	17
Bertso Berriak asto bati Argiñek jarriak	20
Bertso Berriak eiztariai jarriak	25
Bertso Berriak	31
Erru gabeko iltzea	35
Atano amargarrenari	40
Aitzpea'ko Amari	45
Gure txakurrari	49
Kaskazuri bertsolaria	55
Jesus Gaztañaga apaizari ordaiñetan .	59
Maitasunari	65
On Manuel Lekuona'ri buruz	68
Gure zarren izaera	73
Aurtengo Otsailla	76
Nere erri maitea	79
Pagoa, zugaitz zoragarria	82
Aia ta pelota	85
Iparragirre	89

Euskaldunen errua.....	96
Aia'ko omenaldia	99
Amaren azken agurra	101
Uztapideri	105
Zarautz'ko Erruki-Etxea	108
Manuel Lasarte'ri	111
Aia'ko pelota-jaia	113
Aiegi'ko billerari buruz	116
Zorioneko irratia!	119
Munduaren azkena	123
Zarautz'ko Kiroldogiko aritzari	128
Juan Jose Udarregi	131
Bertsolaritzari buruz	135
Arrantzaleak	138
Aia'ko Txikia	141
Karta-jokoa	143
Juan Paulo II	149
Ugoldeak	152

ITZAURREA

Jose Mari Lertxundi bertsolaria, Aia'n jaioa degu, 1932 urteko Abenduaren 9'an, Argin baserrian, Arrutiegia ballaran.

Argin bere jaiotetxean aurtzaro eta gazetako urteak pasa ondoren, gaur egunean Laurgain'en bizi da, emazte ta bi semerekin, Gipuzkoa'ko Diputazioak an daukan lur-eremu eta etxean, bertako basozain eta guarda bezela.

Gain ura, Gipuzkoa'ko tokirik politenetako bat da, dudarik gabe. Ango ikuspegi eder ta zabala ez da nunai billatzen: Aia inguruko muño ta magal berde garbiak; baserri txuriak an eta emen; Pagoeta mendia atzean; Laurgain'go eliza aurrean; kosta aldeko mendiak; itxasoa...

Guk esan bear bagendu, bizi izateko toki egokia, ta bai bertsogintzarako ere.

Diputazioak asmo berriak artu ditu Laurgain'go baso orrentzat: jendearentzat parke biurtzea. Ori dala-ta, bertso-pare au moldatu du Lertxundi'k:

Urte guztian jardun ezker
eten gabeko nekean,
indarberrituz itxoinaldi bat
zeñek artu lezakean!
Opor-aldi bat pasa nai dunak
atsegiñezko pakean,
zorion ori arkituko du
Laurgain mendiko parkean.

Aukera eder au eskeintzen zaie
ainbat langille jatorri,
bertan begira ase ditezen
ainbat sakon da tontorri;
gañera baso eta mendiak
dira euskaldunen jatorri,
deika daukazu toki au eta
bildurrik gabe etorri.

Bertsotarako zaletasuna txikitandik sor-
tu zitzaion.

Kantatu, edozeñek pentsa lezakenez, la-
gun-artean askotan egiten du.

1964 urteko Bertsolari-Txapelketan, Za-
rautz'ko eliminatorian berak irabazi zuan
txapela. Ta 1982'ko txapelketan ere parte
artu du, ta aurrera xamar joan ere bai.

Bañan, ori alde batera utzirik, Lertxundi'-
ren bertsogintza, idatzia izan da geienbat.

Ain zuzen, Euskalerrian zabaldu izan diran azken bertso-paperetatik, bi beintzat Joxe Mari Lertxundi onek atera zituan, bat eiztariai jarria eta bestea asto bati.

Eta bertsolari zaarren usuarioari jarraituz, etzituan bere izen-abizenakin agertu, sortetxeko izenarekin baizik: *Bertso Berriak Argiñek jarriak*.

Gero, bertso-paperen garaia joana baitzan, euskal aldizkari eta egunkarietara bialdu ditu bere bertsoak: *Aranzazu, Zeruko Argia, Goiz-Argi, El Diario Vasco...*

Bertso oiek bildu eta danak batera argitaratu bear zirala esan nion Lertxundi adiskideari, Laurgain'go gain zoragarri ortara joan nintzan batean.

Etzuan ezezkorik esan eta ona emen bertso oiek osatu duten liburua.

Bañan moldiztegira bialdu aurretik, berri ere ikusi eta irakurri nai izan ditu bertso auek, eta an eta emen ikutu batzuk egin dizkie, bere gustora uztearren.

Bertso-sail bakoitza nun eta noiz argitaratu zan, bertsoen ondoren oar bana erantsita adieratzen da.

Bañan iñun argitara eman gabeak ere bazituan Lertxundi'k beste sail batzuk, orain illunpetik atera nai izan dituanak. Oiek ere liburu ontan sartu ditugu; bañan bertsoen ondoreneko oarrrik gabe, noski.

Oarrik-eza dute, beraz, ezaugarria bertso-sail auek.

Lerro auek bukatzeko, eskaritxo bat egin nai nioke Jose Mari Lertxundi bertsolariari: aurrerantzean ere jarrai dezaiola bertso jartzeari; doai eder ori Jaunak emanda berekin duan ezker, ez dezala alperrik gal-tzen utzi, Euskalerriaren onerako erabili baizik.

A. Z

BASO TARTEKO OIUA

- 1/ Aiako Argin baserri maite
artantxe nintzan jaiua,
nekazaritzan egiña nuen
lenbiziko lan-saiua;
ogei ta iru urtez aurrera
basozain ofiziua,
Laurgain menditan gora sarritan
bertso kantari iua,
orregatikan izenpetzen det
baso tarteko oiua.

- 2/ Baso tartetik baso tartera
izan da nere langintza,
gauza aundia ez izan arren
nere lanaren emaitza;
zugaitzak sartu eta zaindutzen
nik eraman det bizitza,
bi maitienak izandu ditut
pagua eta aritza,
ilko nintzake oien artetik
urrun juango banintza.

- 3/ «Nere begiak gozaten dira
txabol ondoko onbuan»
Otaño aren bertso bikain au
maiz darabilkit goguan.
Laurgain mendiko baso tartera
juaten naizen orduan,
bertso ta abesti jardun izan naiz
zugaitz lerdenen onduan,
aiei begira gozatutzen naiz
Pedro Mariren moduan.
- 4/ Basoarekin oroitzen nintzan
oso gaztea nintzala,
orixe zala gizon da abere
guztiontzat serbitzala.
Badu egurra, badu igali,
babesa eta itzala,
gure Jainkoak lengo antzera
lur ontan gorde gaitzala,
ta Euskadiko mendi soil danak
zugaitzez jantzi ditzala.
- 5/ Giro onean igotzen banaiz
Pagoetako mendira,
lenen begiak zuzentzen ditut
Aitzgorri gallur aundira.
Ezker aldean Ernio dago
ta Izarraitz eskubira,
ipar aldetik Kantauri zarrak
eskeintzen duan dizdira,
gain artatikan gozatutzen naiz
izadiari begira.

6/ Barren aldean piñu batzuek
oraindik badaude, baiña
geiena dago pago, aritza,
urki, lizar da gaztaiña,
Euskaldun batek nai duen bezin
baso eder da apaiña,
arnas garbia, pake gozua,
atseden-toki bikaiña,
gauz oien billa dabillen ura
lasai etorri Laurgaiña.

(Aia'ko Laurgain'en,
1983'ko San Juan bezperan.)

AMAREN ONDOAN

ARGIN'ek¹

- 1/ Mundü zabalén ortxe genbiltzan
denok triste edo itun,
kontzientziko illuntasunak
oi zer gauzak ekartze'itun!
Alaitasun bat sortu zitzaigun
emen sartu ta segitun,
ezin da esan Amatxo onek
semek zenbat maite ditun.

- 2/ Gauza txar asko gertatzen dira
mundu ontako bizitzan,
eta gu ere gere egitetan
zabarturikan genbiltzan;
oker guziak zuzendutzeko
Ama au deika ari zan,
nik jakin banu toki onen berri
lenago etorriko nintzan.

¹ Argin izenordez, Arantzazun Ejerzizioak egin berri dan gazte batek azkenengo egunean, emendik bere etxerakoan alegia, onoko bertso berri auek utzi zizkigun. Pozik argitaratzen dizkiogu, bertso auetan agiri baitira Ejerzizio-egiteak dakarzkín poz, alaitasun ta barne-pakea. (*Aranzazu'ren oarra*).

3/ Bi aita praille jardun zaizkigu
aste osoan izketan,
esan digute ez egoteko
kontzientziko kezketan,
zartzarorako bide zuzen bat
artzeko danok gaztetan;
oraingon baño lan gutxiago
ein deu makiñat astetan.

4/ Irakurleak, ez ote zaizte
Ama ontaz oroituko?
Gauza txar guzik kentzen baiditu
onera etorri orduko;
sendagai danak berak dauzka-ta,
nola eztu sendatuko?
Aste bat emen pasiarekin
ezta iñor damutuko.

5/ Benetan seme leialak dauzka
gure Amatxo samurrak,
azkenean egin dizkigute
bere biziko agurrak;
etxe au eztu bate penatzen
aize otz eta elurrak,
gogoia duna ezteilla egon
etorritzeko bildurrak.

6/ Milla beatzireun berrogei eta
amabostgarren urtea,
asieratik gutzat izan da
zeru-doaiez betea;
danen izenez eskaritxo bat
nik orain, Ama maitea:
Azken unea datorrenean
gutzaz erruki zaitea!²

² *Aranzazu*, 1955, III.

BERTSO BERRIAK
ASTO BATI ARGIÑEK JARRIAK

1/ Auzoan ezautu nun
asto gaxo bat beiñ,
baña ez det esango
nongua eta zeñ;
naiz orain urte batzuk
gaixo ura deseñ,
aitamen emango'iot
geroa oroi deiñ.

2/ Orain astotxo artaz
nai nukea mintza,
berari gertatuak
ager al banitza;
gaixuak izan zuan
naiko zorigaitza,
bertsotan jarriko det
beraren bizeitza.

3/ Jaio zanetik laixter
desgraziz asi zan,
ama egun gutxira
akabatu baizan,
eta nagusi txarra
asto askon gisan;
gaixoak egun onik
geio etzun izan.

4/ Zutik ibillitzeko
ainbat ein zanian,
nausiyak erruki-be
artu zun lanian;
bera beteko karga
jundako danian,
olakorik etzuan
izaten janian.

5/ Alde guzietara
asto au biurri,
lanetik gañezka ta
janetik txit urri;
bakigu beiraturik
bizikera orri,
igaro zituela
amaika egun gorri.

6/ Noiz-beinka lanik gabe
ta bere kaltian,
larre txarrean jarri
loturik katian;
gañera egon bear
billa jun artian
gosiak amorratzen
arrantza batian.

7/ Amaika gose triste
pasa zun astua,
nik aren mantenua
ez daukat aztua;
kanpuan larre txarra,
etxean lastua,
etzan aundiya jaten
eindako kastua.

8/ Astotxo gaxo ura
etzan ba aulduko,
lan gogor xamarrean
eraso orduko?
Doble jan emanda're
etzuan galduko,
gosez etekin geio
etzion kenduko.

9/ Konparaziyo batez,
asto arren jana
baldin bazan biraño
iritxitzen zana,
lautan etzan pasako
eiten zuan lana,
bost janda ogeiraño
egingo zuana.

10/ Astoa naiz-ta izan
otxan da umilla,
txit izutua zegon
egur da makilla,
egunero artuaz
zartateko pilla;
orrelaxe zijoan
azkenaren billa.

11/ Nagusiya pentsatzen
au akabatuta,
gelditu bear zula
alperrik galduta,
askoz obe zuela
aprobetxatuta,
txorizotako salduz,
pixkat gizenduta.

- 12/ Gero gizendutzeko
jarri zuan pentsun,
astuak geiegi jan
eta ler egin zun;
nausiyen asmuari
etziyon erantzun,
azkenik kâbi zarren
sartu ber izan zun.
- 13/ Gosez pasa bazun e
bizitza guziya,
azkenean geiegiz
galdu zun biziya;
bat astua zan baña
dago ikusiya
aundiyagua zala
bere nagusiya.
- 14/ Asto aren bizitza
bukatua dago,
zenbat supritu zuan
esan det lenago;
asto-jabe guztiai
ni arrenka nago,
aurrerantz izateko
erruki geiago¹

¹ Bertso-papera, *Elustondo* – *Zarauz* moldiztegiaren argitara emana.

1965 urtean Xenpelar-saria irabazitako bertsoak.

BERTSO BERRIAK
EIZTARIAI JARRIAK

- 1/ Eiztarien bizitzaz
nai det zerbait mintza,
berez oso ona da
eiztarigintza;
mendiyan sendotzen da
gizonan bizitza,
baiña beste aldetik
daukan zori gaitza:
eltzian jai-goiza
askoren peskiza
izaten da eiza
utzirik eliza;
kristauen antzik gabe
asko dabilta.

2/ Eizetak daukana da
gastua ugari:
lenengo zenbat diru
eskopetari;
gañera muniziyo
ta lizentziyari,
ta ia zenbat jaten
dauzken zakurrari;
beiratu danari,
gañera eizari
nai dionak segi
uzte'io lanari,
mixeriya ekarriz
famiyari.

3/ Griña diferentiak
daude eiztaritan:
batzuek usotan nai,
bestek erbitan,
besteak ollagorra
ia amets guzitan;
jo ta autsi ibiltze'ira
esandako eiz oitan,
aste eta jaitan,
baso ta menditan,
aiñ neke aunditan
amaika alditan,
ta utsikan etxera
irutik bitan.

4/ Uso-zale diranak
usotan atsegiñ,
orain eiztari ointzat
nai det itzegiñ;
egoaizea astean
goiz jartze'ira mendiñ
txaboletan gordeta
usoen guardiñ,
beiratz aldemiñ¹
ta usorikan baldiñ
bada, tiro egiñ,
baten-bat ill dediñ,
bañan geientsunetan
danak aldegiñ.

5/ Erbitan e askotxok
gaur dauka afana,
gizon-pilla bildurik
alkarregana,
gañera gutxiñeko
beste zakur bana;
noizen beiñ arrapatu
ta ordun erbi-jana,
bai merke eztana
juaz gastu dana
ta galdu dan lana,
bueltik ez daukana;
eiz au da markesentzat
utzi bear dana.

¹ Aldemin: noiz-beinka, aldean bein, Aia'ko izkeran.

6/ Ollagorretan ere
askotxo zoratzen,
mendi ta baso dabiltz
oik arrapatzen;
egunen bi bakoitzak
naiko lan botatzen,
ala izanda're asi
kontuk ateratzen;
oik errez da saltzen,
baña egon pentsatzen:
geio ez badu ekartzen,
ori ari da galtzen,
bikiñ eizeko gastuik
eztu osatzen.

7/ Beste eiztari batzuk
gure alderdiyan,
ibilli oi diranak
maiz pikardiyan;
ollo ta konejuak
nola basarriyan
sarri ibiltzen diran
libre atariyan,
naiz egunsentiyan
ta siesta-garayan
eiztarik talayan
zakuratu nayan,
len esandako oitatik
eiz-aitzakiyan.

8/ Batzuk garbi egon arren
litxarreritikan,
eztago eiztaririk
famatzerikan;
bera baserritarra
sarri izanikan,
or dabil besten zelai
ta sorotatikan,
erdi-erditikan,
danen gañetikan,
bestenagatikan
ez diyo ajolikan,
baño ezin esan ori
ondo danikan.

9/ Eiztaritan e bada
gaizkirako griña,
bañan ez dute ori
danak berdiña;
nik gauzak jarri ditut
al danik garbiña,
ta egi oik ukatzeko
ezta iñor diña;
Kristoren dotriña
danentzat berdiña,
eta dan ark piña
artuko du miña,
norberak nai ez duna
bestei egiña.

10/ O, eiztari maiteak,
ni azken agurrez
gauz baten eske nator
biotz xamurrez;
zer akats dauzkazuten
agertu det aurrez,
konseju bat danori
bainago bildurrez;
kristau batek berez
bizi bear fedez,
au egin mesedez,
naiz ez izan errez:
eizean segi baña
Jainkuan legez.²

(10-IX-65, *Argin.*)

² Bertso papera, «*Elustondo – Zarauz*»,
Zeruko Argia, 1967-II-12.

BERTSO BERRIAK¹

- 1/ *Zeruko Argia*'n izan eztedin
bertsoekiko utsuna,
jartzera nua ta gaia ere
aukeran daukat batzuna.
Bi alditan nik tolosar baten
deadarra det entzuna,
orain orrixe emango diot
merezi dun erantzuna.
- 2/ Eta dalako tolosar ori
dabil deadar egiñez,
bere biotza lertzen daukala
bi damagan maite miñez.
Ta dama oiek berori ere
maitatzen era berdiñez,
gauz txar bat dauka: bi oietatik
zein aukeratu jakiñ ez.

¹ Guillermo Albizu bertsolariak, maitemindu tankerak azaldu zitun asteroko ontan argitaratutako bere bertso batzutan.

Aia'ko Joxe Mari Lertxundi bertsolari gazteak erantzuten dio gaur. (*Zeruko Argia*'ren oarra.)

3/ Izar kuttunak bereganatzen
ori berdindutzen gaiz-ta
beti norbaitek nai dion otsa
bertsotan beñepein maiz-ta,
Orain aurretik Zalbidi'n zun bat,
orain Tolosa'n bi aizpa,
aukera ori nola lezaken
ni asko arritzen naiz-pa.

4/ Orain bi neska maite ditu ta
len maite zuen bestia,
tamaña ortako aukerarekin
asko izaten eztia.
Ainbeste gauza ta alare ola,
ori bai dala tristia!
Beti zai nago ni noiz artuko
ezkondu dan albistia.

5/ Aitatutako tolosar ori
degu Gillermo Albizu,
eta denbora pasa baño len
egin nai dizut abixu.
Dama kuttunak nunai gañezka
zuri agertzen zaizkitzu,
urak juatian presa egitia
alperrik dala bâkizu.

6/ Ene, Gillermo ezkongai zaude,
aurreratua edadez,
or ari zera «neskatzak nunai
aukeran dauzkat» esanez.
Dudik eztago lotan zaudela
egiten dezula amets,
eta gerora esnatutzian
maite zaitunik baterez.

7/ Ainbat maitale eduki eta
egon zu zauden bezela,
esaidazu esan gertakizun au
iñun gertatu leikela.
Ta zuk diozun aukerarekin
sinistu dudan gaudela,
ala izatera zu onezkero
ezkondu ziñan bestela.

8/ Leno banaka izaten ziñun
ta orain kolpez bitaño,
diximuluan itzak sartu nai
norbaiti biotzeraño.
Nik au badakit, aukerarikan
ezta izaterik ortaño,
palta dezula jarrita obe
orrela jardunda baño.

- 9/ Ene, Gillermo, nik ikusten det
zu nola zauden galaian,
gustokorikan iñun billatu
etzendulako garaian.
Ni nola beti ibiltzen naizen
iñori lagundu naian,
nai bazenduke, itxurazkoak
iru badakizkit Aia'n.
- 10/ Esan bezela, zure galgara
Aia'n daude iru neska,
bizimoduan zintzoak eta
maitetasunez gañezka.
Nere kontua gezurra ote dan
baldin badaukazu kezka,
besteak berdin esango dute
asten bazera galdezka.
- 11/ Iduritzen zait zu orkoekin
ote zabiltzan ikaraz,
emengo batek zure gogoak
beteko ditu naikeraz.
Zintzo, jatorrak bizimoduan,
ta itzegiñaz euskeraz,
zuk bear dezun moduko ori
oraintxe dezu aukeraz.²

² *Zeruko Argia*, 1966-IV-17.

ERRUGABEKO ILTZEA

- 1/ Milla beatzireun ta ogeitamasei-
garrena gendun urtian,
Españitarrak alkarren aurka
asi ziran gerratian;
ta gorrotoa nola dun gerrak
beti gizonen artian,
ara zer gauza pasa zan ordun
Euskalerriko partian,
iñori gaitzik egin gabeko
famili jator batian.

- 2/ Famili ortan gertatu zana
nua adieraztera,
aita ta ama bizi ziraden
beren umekin batera;
gau baten gizon batzuek juan
ziran etxeko atera,
errugabeko aita on ura
iltzeko eramatera,
zer une beltza bearko zuan
denok kontuak atera.

- 3/ Gau triste artan etxeko danak
lo gozo baten zeudela,
gau erdian or aitak entzun zun
atia jotzen zutela;
atia iriki eta ikusi
zitun gizonak onela:
arma banakin jira arturik
kriminal bati bezela;
ta esan zien zer gauz nai zuten
pozik jakingo zukela.
- 4/ Orduan batek urreratu ta
jakiñan gañen jartzeko,
paper bat eman zion eskura
esanaz irakurtzeko;
paper ark zion nai baldin bazun
pamilia agurtzeko,
aiekin jua bear zuala
geiago ez etortzeko,
nola ordena artuta zeuden
gau artan bera iltzeko.
- 5/ Ori entzunik aita etxera
sartu zan guztiz goibela,
andriak zer zun galdetutzian
erantzun zion onela:
«Gizon batzuek etorri zaizkit
esanaz il bear nautela».
Ori entzunik andre gaixua
desmaiatu zan berela,
gizonak lagun zion txuspertzen
bertan ilko zan bestela.

- 6/ Gero gizonai iruditurik
premizko gauza ote zan,
andriai orla itzegin zion
zer gauz egin jakin zezan:
«Umeak zuzen azi itzazu
naiz-eta bizi pobrezan,
aitarengatik galdetutzian
nola il nauten ez esan,
biotz oietan gorroto txarrik
gauz orrek sortu ez dezan».
- 7/ Andre kutun ark nai zuan baña
etzekian nola mintza,
ikusten baizun andre alargun
batentzat zegon bizitza:
umeak azi eta ezitzen
zeukan nekeko langintza,
eta gizonak ori eskatzen,
uraxe zan zorigaitza
alaz guztiz e beteko zula
bertan eman zion itza.
- 8/ Gero gizona abitu zan ba
bizitz ura eskeintzeko,
baña andria lagundu gabe
etzeguan gelditzeko;
borrerongana bera juan zan
esanaz errukitzeko,
arek laguna bear zuala
pamilia azitzeko,
arren da arren eskatu zien
gizonikan ez iltzeko.

- 9/ Bañan andrian erregu danak
alperrikan izan zian,
borrero aiek denak biotzez
gogor arkitzen baitzian;
gizona libratutzen etzala
andriak ikusitzian,
alkar ainbeste maite zutenak
nolako zorigaitzian
negargarrizko gau triste artan
betiko agurtu zian.
- 10/ Bildots garbi bat otso maltzurak
ondatzen duten antzea,
gizon ura're borrero aiek
eraman zuten iltzea;
ordun andrea negarrez lertzen
sartu zan bere etxea;
jakin nai dunak zer naigabe dan
ola gizona galtzea,
gaiean danak asko izango du
beretzaz gogoratzea.
- 11/ Andre gaixoai naigabe asko
gau arek eman baziyon,
urrengo egunak aundiagoak
azkoz e sortu zizkiyon;
noiznai umeak aitaren galdez
amai juaten zitzaizkiyon,
bere senarrai emandako itza
ordun oroitzen zitzayon,
era ortantxe bizi guztiko
negarrari eman ziyon.

12/ Gertakizun au oroitutzian
zein ez leike ikaratu?
Ta gorrotoak ez ote ditu
orlakoak maiz eratu?
Belar gaizto au galdua danik
ez beza iñork pentsatu,
Jaungoikoari jardun gaitezen
eskatu eta eskatu,
gure tartean olakorikan
berriz ez dedin gertatu.

ATANO AMARGARRENARI

- 1/ Guipuzkoarra bezela nator
pelotai bertso-jariyo,
probintzi onek eskuzkoari
bizirik eutsi baidiyo;
txapelak berriz aspaldi xamar
ein zun emendik ariyo,
berriz ez genduela izango
naiz-ta batzuk egon piyo,
aurtengo ontan ekarri degu
Atano dala meriyo.
- 2/ Milla beatzireun berrogei eta
amazazpiko partean,
esku-pelotan txapela galdu
gendun Gipuzko maitean;
gero kanpoan ibili zaigu
beste beatzi urtean,
gure anai diran bizkaitar eta
arabatarren artean,
baiñan ekarri degu onuntza
berriz ere noizbaitean.

3/ Arriaran'i Garcia Ariño'k
kendua zion aurrena,
Garcia Ariño'i Ogeta'k berriz
era berean urrena;
Ogeta'gandik txapela ori
juan zan Azkarate'rena,
Azkarate zan gipuzkoarrentzat
etsairikan gogorrena,
baiñan azkenik nausitu zaio
Atano amargarrena.

4/ Milla beatzireun iruroitasei
San Isidoren eguna,
esku-pelota bizi dan arte
gogoratuko deguna;
Eibar'ko *Astelena* zarrean
etzan partidu biguna,
baiñan Atano aurretik asi
ta beti aurretik juna,
eta amairu tantotan utzi
Azkarate txapelduna.

5/ Biok pelotan joka dezute
makiñatxo bat gerrate,
dana partidu txalogarria,
lotsagarririk ez bate.
Zenbat dejada zoragarrizko,
zenbat atzera emate!
Senti bezela esate'izutet,
Atano ta Azkarate:
dudikan gabe alkarrentzako
egindakoak zerate.

- 6/ Nausitasuna luzaro egon da
bizkaitar oien eskuan,
zer esanikan batere gabe,
oso era legezkuan;
baiñan jokutzen duenak beti
nola dagon arriskuan,
aurtengo ontan txapela ori
sartu zaigu Gipuzkua'n,
merezi du-ta eutsi, Atano,
zeurekin urte askuan.
- 7/ Igo ta jetxi eiteko egunak
gertatzen dira danontzat,
nik irabaztun eta galtzaille
biak jotzen ditut ontzat;
duan guztia ematen duna
nunai artzen da gizontzat,
ikusi ezin da gorrotorik
nik eztadukat iñontzat,
baizik zorion anaikorrenak
maitasun guztiz biontzat.
- 8/ Atano, denak menderatuta
jarri zera aurreneko,
nik galdetzen det: txapela ori
zeurekin zenbat urteko?
Danok seguru dakiguna da
berriro kendu arteko,
baiña zu nola zeran pelotan
osabaren oiñordeko,
arek bezela ez ote dezu
luzaro zeukin gordeko?

- 9/ Ikus dezagun Euskalerriko
pelotarien kondaira,
majiñatxo bat erritatikan
onak atereak baira;
baiñan onenak nundarrak ziran
jartzen bagera begira,
dudikan gabe sonatuenak
Azkoiti'tik erten dira,
gaur e txapelik etzan izango
onak egon ezpalira.
- 10/ Landare ederrik sortua zera
zu, Azkoiti'ko erriya,
oain urte batzuk bazendun beintzat
pelotan arrigarriya,
arek zituen anka azkarrak,
besoak eta begiya;
arbola zarrak bere zaiñetik
bota du kimu berriya,
Guipuzkoa'ri goien eusteko
izan da zuen premiya.
- 11/ Danak diote dudikan gabe
Atano irugarrena
izandu dala pelotaritan
ezautu danik onena;
da Gipuzkoa'n txapeldunetan
au zan bere ondorena:
Gallastegi ta gero Soroa
bat bestearen urrena,
eta azkena izandakoa
Arriaran bigarrena.

12/ Bere amaia ematerako
bertsoetako jardunai,
agur bero bat nik Atanori
ta bere erri kutunai;
pelotariak sortzeko ez dira
olako erriak nunai,
esker beroak zor dizkiogu
ainbat seme eman dunai,
ta zuk, Azkoiti, eutsi luzaro
txapela ta txapeldunai.

AITZPEA'KO AMARI

1/ Aitz pean zauden Ama maitia,
zu aiatarren babesa,
eta bakoitzak bere biotza
zuregana jarri beza;
zu eskertu ta goraltzea da
erritar danon ametsa,
merezi dezun dana ematen
alare ez dago erreza.

2/ Bitartekotza eiteko ziñan,
Ama, aitz pean jarriya,
zu etortzera beartu ziñan,
alain zan une larriya;
o, gure Ama, ordun ez-ezik
gaur ere bada premiya,
zaitu ta gorde ezazu arren
gure Aia'ko erriya.

- 3/ Ene Amatxo, au da guztiok
dadukagun naitasuna:
azkenik gabe izan zazula
guganako maitasuna;
lendabiziko eskatze'izugu
egizko kristautasuna
ortaz gañera komeni bada
pakia ta osasuna.
- 4/ Urte asko dira, Ama, aitz pean
zuk oña jarri zendula,
nola zekizun or agertzea
guk bearrezko gendula;
geroztikan zuk bai grazi asko
ortik banatu dezula,
ondo eskatuta zuk eman gabe
ez dezu utzi sekula.
- 5/ Ama, zuk Aia'n badaduzkazu
egundoko merituak,
zure bitartez sendatu dira
gaixo eta erituak;
ta beste batzuk sinismenean
atzenduta geldituak,
Aitzpeko elizan zeure oñetan
dituzu konbertituak.

- 6/ Aitz pean jarri ziñan unetik
zu gure erria zaintzen,
oitura onak indartu ziran
ta txarrak juan ziran aitzen.
Gaur bertan ere ez al da ori
argi ta garbi nabaitzen:
zure laguntzaz erreza dala
etsai guztiak garaitzen?
- 7/ Gaur egunean zure doaiez
askotxo gaude aztuak,
eta emengo lokaztietan
zikindu ta narrastuak;
zuzen itzazu bide onera
gure joera nastuak,
ta utzi gaitzazu zure eskerrez
guztiok aberastuak.
- 8/ Ama kutuna, nik orain nai det
zuri otoitz bat eitia,
gure errian dauden premiak
gaur e aundiak baitia:
sinismenean bero gaitzazu,
ene Amatxo maitia,
ta azken unea datorrenean
gutzaz erruki zaitia.

9/ Zeruan zauden Ama goxua,
berriz etorri gugana,
ondo dakizu sinismenean
asko atzendu gerana,
eta zerorren laguntzik gabe
berriz sortuko eztana;
arren, zuzentzen lagun zaiguzu,
ene Amatzoz laztana.

10/ O, gure Ama, zuri eskaka
gu bizi gera munduan,
bitartekotza egin dezazun
eriotzako orduan;
emen urbiltzen geranak Zuzan
seme-alaben moduan,
ildakoan e artu gaitzazu,
Amatzoz, zure onduan.

GURE TXAKURRARI

- 1/ Guk etxean badegu
txakur berezia,
bertso batzuk jartzia
ondo merezia;
Albacete'n jaiua
baiña guk azia,
geroztikan amaika
egun on pasia.

- 2/ Laurgaiñ'en bizi da ta
izena dauka *Laur*,
denakin portatzen da
gozo eta xamur;
orrekin jolastuak
badira zenbait aur,
diru truke saltzeko
eztadukagu gaur.

- 3/ Bere arraza zuan
artzai alemana,
adur ona bazuan
norbaitek emana;
buruz oso argia,
jenioz otxana,
bixitari askori
oñetan etzana.
- 4/ Semerik txikiena
kidekoa zuan,
gauzikan maitiena
uraxe bazuan;
batzutan atarian,
bestetan basuan,
biak ibili ziran
bost urte osuan.
- 5/ Bi urte zituala
mutikua galdu,
miatu inguruak
da etzan azaldu;
anparo bat gendukan
da guk ari eldu:
«Txakurra palta da ta
an izango al du».

6/ *Mendi* basarria du
guriak auzuan,
nonbait bidean gora
araño jo zuan;
ango mutillak artu
nai arren besuan,
txakurrak bere ondoan
babestutzen zuan.

7/ Mutikua juaten
bazan jolasera,
txakurra beti lagun
zijuan klasera;
iñoiz etortzen bazan
lenago etxera,
berriz jua izan zan
ura ekartzera.

8/ Mutikuak e zion
maitasun sakona,
aundigua txakurrak
berari ziona;
umea goizean lo
egiten zan ona,
txakurra amaika aldiz
jaiki-zai egona.

9/ Nikanor naiz ez izan
gorputz aundikua,
eskolara asi zan
gure mutikua;
umiak ezin utzi
txakur begikua,
ta etxian zeñek egin
txakurrakikua?

10/ Nik goizian Nikanor
kotxian eskolâ,
ta txakurra etxian,
negar zeriola;
gero're ikusten zan
ain triste zegola,
ura gabe ezin zan
alaitu iñola.

11/ Illuntzean etortzen
zan autobusian,
ta pasaran gelditzen
zan beko kruzian;
naiz-ta oñez ez igo
ain bide luzian,
gu beti orren kezkaz
denbora guzian.

12/ Mutikua nolatan
eiten zan etorri,
Laur'ek antzeman zion
ordu garai orri;
gero autobusera
egiten zun korri,
bidera ertetera
gure Nikanorri.

13/ Mutikua paradan
jetxitzen zanian,
txakurra itxogiten
bide barrenian;
ta Nikanor etxera
abitzen zanian,
txakurrai eltzen zion
ia geienian.

14/ Ezin obeagua
da gure txakurra,
tximixtak izutzen du,
uraxe makurra;
gain ortan edozeiñi
sartze'igu bildurra,
izan e badu orrek
zerbaiten adurra.

15/ Ara nik jarri ditut
txakurraren famak,
etzuten txarra egin
aitak eta amak;
geiegitzat ez artu
nik emen esanak,
doai geio baditu,
ezin jarri danak.

16/ Etxian maitatzen da
olako laguna,
sendiko bat bezela
danok daukaguna;
alderdi bat ikusten
diot nik illuna,
tristea izango dala
galtzen dan eguna.

KASKAZURI BERTSOLARIA

- 1/ Guztiz gogoko gaia etorri
da nigana zorionez,
oroitu-azi nai det erria
zerbait aztuta dagonez;
Oartzuar au zein gizon gendun
gutxik jakingo dutenez,
utzi nai ditut bere aztarnak
argi ta garbi emanaz,
bertso berriak jartzera nua
Kaskazuri'ren omenez.

- 2/ Nikolas gendun beraren aita,
baiña aren emaztea
bi aur izanda bereala il,
izanagatik gaztea;
andik iru bat urte inguru
ezkondua zan ostea,
lenengo emazte Jospiñaxi zan
ta Gregoria bestea,
Kaskazuriren ama au zala
nai det adieraztea.

- 3/ Bigarren aldiz Gregoriakin
Nikolas zan uztartua,
zortzi seme ta alaba ziran
ezkontza aren frutua;
zortzitatikan Joxe Joakin
lendabizi agertua,
geroxeago Kaskazuriren
izena zuen artua,
amaika bertso ta ateraldi
arrigarrizko sortua.
- 4/ Zortzireunekin iruitamairu
aurretik jarririk milla,
ogei ta bostgarren egunera
irixtean dagonilla,
Oiartzun'go Zurko baserrian
jaio zan gure mutilla,
bertsolaria izango zana
eta izketan abilla;
aita batenak amar baziran,
ori da senide-pilla.
- 5/ Mutikotan bein jolasera juan
etxe zar baten barrena,
bere moduko lagun batzuek
bildurikan alkarrena;
orma zar baten gañera igo
eta amildu urrena,
ark txorkatilla apurtu zuan,
uraxe gauzik txarrena,
gero andikan geldi zitzaion
bizi guztiko errena.

- 6/ Bere opizio edo langintzaz
Kaskazuri zan argiña,
bertsotarako zuan ordea
txiki-txikitandik griña;
baiña eztarri txarra zuan da
zeukan kantatu eziña,
naiz-eta jakin erririk erri
ibiltzeko etzan diña,
bere bizitzan onetxek zion
kalte aundia egiña.
- 7/ Garai aietan erri artako
erretore, medikuak,
Kaskazuri au zirikatutzen
nola ziran errikuak;
bi gizon auek izanagatik
jakinduri aundikuak,
zerbait galdetzen asten baziran
ark erantzun neurrikuak,
karrerakuak menderatzeko
ark bazekizkin naikuak.
- 8/ Kaskazuri au etxe-bidean
bein lokatzetan geratu,
bi emakumek ikusi zuten
eta ziran ikaratu;
agoazillari deitu zioten
eta ura alderatu,
zer gertatzen zan galde eginda
ara nola zan mintzatu:
«Au dek marka, au! Ni gaizki egon
ta emakumeak kejatu!»

- 9/ Bein bi anaiak zurrut egin da
etxera abitu gaubez,
bide estua eta banaka
zijoazten derriorrez;
ta Kaskazurik atzekaldean
eraso zion marmarrez,
ta Antoniok «Zer duk?» galdetu,
besteak erantzun parrez:
«Zer izango'iat? Balantz egin nai
eta emen tokirik ez».
- 10/ Gaztetxotatik bertso-egarriz
Kaskazuri zan asia,
garai artako askoren gisa
etzan gizon ikasia;
baiña zan buru azkarrekua,
zeukan berezko grazia,
zenbat ote zan aren onduan
une goxuak pasia?
Orregatikan zor zaio orain
omenaldi berezia.
- 11/ Ogei ta seigarren egunean
Otsailleko partean,
minbiziakin illa omen zan
sasoiko zala artean;
milla bederatzireun ta ogei
ta amabiko urtean,
berrogei eta emeretzikin
illik sartua lurpean,
oraindik ere bizirik dago
jarraitzaillien artean.

JESUS GAZTAÑAGA APAIZARI ORDAIÑETAN

1/ Errezil aldetikan
datozkit berriak,
artzai bat dala bide
dira etorriak;
eskumiñak zizkidan
andik ekarriak,
ordañez bertsoak nai
baña neuk jarriak.

2/ Asiko ez nintzana
iñoiz nere gisa,
abisu au dala-ta
sortu zait peskiza;
bertsoak jarritzea
egingo det aixa,
baña bertsoz nork ase
On Jesus apaiza?

3/ Egin bearoko diot
oinbeste fabore,
beste egun batean
zer gertatuko're;
agidanean bizi
da oso dotore,
egin zan ezkeroztik
orko erretore.

4/ Lenengo proatu zan
Laurkindarren artzai,
gero Aizarna'ra jo
elduaz lan latzai;
ta orain ekin dio
or erretoretzai,
oraingo martxa ortan
laxter zera gotzai.

5/ Erniopera egan
juan dan uxua,
gelditzeko arkitu
txit toki goxua;
Gipuzkua'ren biotz
dan erri gaixua,
euskera indartzeko
or dezu maixua.

6/ Txoko orretan bizi
bai gozamenian,
sinismena zabalduz
Kriston izenian;
euskerara indar dedin
jarraitu lanian,
eldu bearra dago
aukera danian.

7/ Gaurkoz ondo dijua,
indartzen ari da,
len askotxok zioten:
«Betiko erori da».
Gogotik bultzatzea
orain komeni da,
gure egin bearra
nere ustez ori da.

8/ Izkuntza degu gauza
danetan lenengo,
alkar ulertutzea
ango ta emengo.
Noizbait ez ote gera
argira ertengo?
Esperantza aundiak
dauzkagu aurtengo.

- 9/ Euskeraren gosea
askoren kasketan,
amorru au sortu da
batez e gaztetan;
ia etenik gabe
jai eta astetan,
gogor ari dirade
beren ikasketan.
- 10/ Gaur noranai juanda
euskeraz galdetu,
eta geienak ortaz
oi dira jabetu;
giro au oraindikan
diteke obetu,
nola askotxo diran
euskera-zaletu.
- 11/ Ibilli bada ere
ia-ia galduan,
indartzeko itxurak
ditu orainguan;
lengo okerrak dabiltz
ezin ordainduan,
konturatu baidira
zer balio duan.

12/ Itxurak egiteko
askoren jarduntza,
zapaldutzen baidabiltz
nor bere izkuntza;
oien partez guztiok
dezaiogun bultza,
euskera igotzerik
nai bada goruntza.

13/ Kontra jardun zaizkio
majiña bat milla,
oiek naiago zuten
egon balitz illa;
agonian igaro
ditu urte-pilla,
asi dala dirudi
arnas berri billa.

14/ Asko saiatu dira
izkuntzan kaltian,
zenbat negar egin dan
gure lur maitian!
Orrenbeste gorroto
anaien artian,
bukatuko al dira
alakon batian.

15/ Zuk bertsoak onak nai,
au nere negarra,
gauz ez danari dago
barkatu bearra;
oberik jarri ezin
det pena bakarra,
bestarik gabe agur,
nere lagun zarra.

MAITASUNARI

- 1/ «Elkar maiteak izan zaitezte»
Kristo'k ori agintzen du,
baiña lege au baztertu dala
aldi ontan ematen du:
gorrotoa ta ikus-eziña
giza-artean gailendu,
lagun urkoa zapaltzen degu
eta daukanetik kendu...
Olakorikan ez legokea,
elkar maiteko bagendu!

- 2/ Mundu ontako bizikerari
begira nago ni sarri:
ementxe gabiltz naspillaturik
guztiok estu ta larri.
Kristo'k mundura maitetasuna
danontzat zuan ekarri,
utsegiteak barkatu eta
lagundutzeko elkarri,
orregatikan maitasuna da
gauza guztien oiñarri.

3/ Kristo'k guztioi eman zizkigun
bi lege edo agindu,
eta kristauak orien berri
argi ta garbi jakin du:
lendabiziko, Jainkoa maite,
ori ukatu ezin du,
eta urrengo, lagun urkoa
norberarekin berdindu.
Ortikan kanpo gabiltzalako
ia gureak egin du.

4/ Gizarte txar au zuzendutzeko
daukagu bide bakarra:
gorroto danak baztertu eta
elkar maitatu bearra,
bada bestela berriz ere bai
eten gabeko negarra.
Gizaki danei egin deiegun
suspirioz deadarra:
«Elkar serbituz sortu dezagun
maitasunezko indarra!»

5/ Maitasunaren frutu ederrez
beteta dagon zugaitza,
doai on danak berekin ditu,
ain da berdindutzen gaitza!
Arbola orri sortu zitzaion
erru txarra edo gaitza:
Ori dala-ta geroz zenbatek
eman dun bere bizitza!
Auxe da, noski, dudarik gabe,
maitasunaren emaitza.

6/ Maitasuna da gauzik onena
dauzkagun doai danetan,
ori berdindu lezakeanik
ez dago mundu onetan.
Auxen erabil bear genduke
eguneroko lanetan:
Zenbat alditan egoten geran
naigabez edo penetan,
elkar maitatzen ez degulako
egitaz edo benetan.

7/ Gaurko munduan maitasun gaia
orrenbeste aitatzea,
esan liteke gauz ori dala
amets goxoen antzea:
Esnatutzean amets-loreak
ezin da gero artzea.
Maitasun-lore bikaiña ere
gertatzen zaigu galtzea,
ez baida berdin ametsetan da
egitetan maitatzea.¹

¹ *Goiz-Argi*, 1976-IX-25.

ON MANUEL LEKUONA'RI
BURUZ

- 1/ Manuel Lekuona
gizon berezia,
bertso batzuk jartzea
ondo merezia.
Orain dala urteak
ereiñik azia,
zure lana prutuak
ematen asi'a.

- 2/ Milla bederatzireun
emezortzi urte,
Oñati'n batzarren bat
ein zala digute;
Lekuona gazteak
an artu zun parte,
etzitzaion gustatu
batzar ura bate.

3/ Periodista batzuk
zuten itzegiña,
bertsozalea zala
gizon ezjakiña.
Lekuona'ri orrek
eman zion miña,
ori zuzentzen ein du
geroz alegiña.

4/ Bergara'n zan urrengo
batzar bat sakona,
bertsozale askotxo
orren zai zegona.
Gai ortan mintzatu zan
gure Lekuona,
ez dago esaterik
egin zuan ona.

5/ Batzuk bertsolaritza
oso beeratuaz,
bai zu konturatu're
oien pekatuaz;
lana egin zenduan
ondo pentsatuaz,
bide oker guztiak
ankaperatuaz.

6/ Len jakintsu askontzat
bertsoaren otsa
entzuten egotea
bajeza ta lotsa.
Lekuona'k jarri zun
araudi zorrotza,
esanaz ori zala
errian abotsa.

7/ Kontra ari ziranak
esanaz au ta ura,
zuk erori erazi
dituzu kontura;
gure bertso ta jolas
ta milla oitura,
errialde bakoitzak
du bere kultura.

8/ Gaur erria daukagu
bertsoen gosean,
ni orretzek jartzen nau
eundoko pozean;
baztertuta zegona
denbora luzean,
gaur nola ote zegon
zu izan ezean?

- 9/ Ogeigarren gizaldin,
eta abenduan,
illaren amaseian
Donosti'n genduan.
Zure omenaldia
naiko beranduan,
orain baiño lenago
merezi zenduan.
- 10/ Bertsolariak bildu
ziran danak baten,
omen itxurazko bat
eskeiñi zezaten;
itzik egokienak
naiz jardun esaten,
ez dago errez zuri
ordaiña ematen.
- 11/ Zu saiatua zera
garai gogorretan,
aurpegia emanaz
zenbait bazterretan;
berdiñikan ez dezu
lantegi orretan,
bertsolaritza dago
zurekin zorretan.

12/ Zuk lana egin dezu
ainbeste urtean,
ta eskertutzen zaitut
biotza betean.
Besarkatu ere bai
maitasun batean,
orain agur bero bat
urrengo artean.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1980-I-6 eta 9.

GURE ZARREN IZAERA

1/ Gure zarrak ditut gaur
bertsotako gai-ta,
izeba ta osabak,
ama eta aita;
gertatzen ari dana
lotsagarri baita,
iñork bere etxean
zarrik ez du nai-ta,
geure ongillerikan
ezin nunbait maita.

2/ Zarren bizitzaz asi
gaitean kezkatzen,
gauza negargarriak
baitira gertatzen;
nik beste gauzarikan
gaur ez det eskatzen,
kontzientziak asi
bear du esnatzen,
geu zartuko geranik
ez degu pentsatzen.

- 3/ Iritxitzen danari
zarra izatera,
zer gertatuko zaion
noa esatera:
sartu bear Erruki
Etxeren batera,
gogozkoa etzaion
jendeen artera;
an nola biziko dan
kontuak atera.
- 4/ Etxe oien barruan
beti giro otza,
ango bizimodua
nola dan arrotza;
bekaizkeri asko ta
beiratu zorrotza,
iñondik entzun ezin
maitien itz-otsa,
penaz lertutzen zaio
zarrari biotza.
- 5/ Lanean lertu dana
nekean indarrez,
ondorengoei zerbait
lagundu bearrez,
gauza au sinistatzen
ez da oso errez:
zartzarora iritxi,
eurentzat ezer ez,
bazterturikan zenbat
bizi dan negarrez!

- 6/ Gai onek ematen dit
zertaz itzegiña,
nere barruak dauka
ulertu eziña;
zarra, zu baztartzea
etzait atsegiña,
jakiñik daukagula
izate berdiña,
biar neretzat baita
gaur zuri egiña.
- 7/ Zarrik geientsuenak
oi duten ametsa:
beren bizilekutzat
etxeko babesa.
Baiña egi biurtzen
ez dago erreza,
munduan millaka da
gauza aldrebesa,
baiñan aldrebesena
maitasunik eza.
- 8/ Bakoitza oroi bedi
bere gurasuan,
lanean lertu dana
bizitza osuan,
denari lagundutzen
etxe ta auzuan;
zartzaroa bear du
era erosuan,
antxe atsedean dezan
etxeko gozuan.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1980-III-2'en, 6 eta 8'gna izan ezik.

AURTENGO OTSAILLA

- 1/ Milla ta bederatzireunekin
laroreigarren neguan,
nik berri auxe bidali nai det
gutxiñez milla leguan.
Otsail dana egiña digu
giro gozo ta beruan,
orain ogei ta lau urtekotik
alde aundiko genduan.

- 2/ Orduan otzak bazter guztiak
utzi zizkigun erreta,
illabetean elur da izotz,
ez da gero berriketa!
Ta aurten berriz txalmak kendurik
danok izerdiz beteta,
egualdia're xelebrea da
artzen dunean kasketa.

3/ Eguzki gozo, aize epela,
eguneroko denbora,
prexkoaldi bat etortzen bazan,
segitun berriz berora;
iru-lau egun kendu ezkerro,
ogei gradutikan gora,
aurtengo orrek amaika aldiz
eldu bear du gogora.

4/ Baso-lanetan ari diranak
galdu gabe egunikan,
baserritar da artzaiak ere
ez dute zer esanikan;
oraindikan ni entzun gabe naiz
il onentzako pamikan,
baiña aurtengoa ez leike esan
gaizki portatu danikan.

5/ Amaika aldiz il gaizto onek
jarri gaitu larrituak,
zenbat pertsona diraden illak,
edo gaizki geldituak;
bei, ardi eta abereetatik
beste ainbat garbituak,
aurtengo onek danak indartu,
orrek dauzka merituak!

6/ Otsail orrek utzi dizkigu
oso alderdi apaiñak,
ostro ta lorez erdi jantzian
baso eta mendi-gaiñak.
Nere barrengo sentimentua
esanazten dit mingaiñak,
orain pozikan gabiltza baiña
etorri leizke ordaiñak.

7/ Joan dan il ortan sarritan oi da
negute gogor da latza,
aurtengo ontan ikusi degu
berebiziko mudantza;
gure tartean ere aspaldi
giro txarra eta saltsa,
au ere noizpait onduko dala
euki danok esperantza.

8/ Il onen bidez esan dizutet
zerbait oroitzen naizela,
nik nai nukena besteak ere
konturatu ditezela.
Ikusten degu gauza askotxo
okertzen dijoazela,
Euskadi ere zuzendu bedi
Otsail ori bezela.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1980-III-14.

NERE ERRI MAITEA

(Doiñua: «Ikusten duzu goizean...»)

- 1/ Aia'ko erri maitea,
nator aitormen eitea,¹
pozkidaz jarri zaitea;
seme-alabei emate'iezu
maitasunakin batea
osasuna ta pakea,
babes edo aterpea,
leku oberik ote'a?

- 2/ Zu goian zera ageri
begira itxasoari,
pake gozotan igeri.
Dana baserriz jantzia zaude,
soro-zelaiak ugari,
ganadu asko ta guri,
bizia ematen guri,
ordaiñez ezkerak zuri.

¹ egitera.

- 3/ Ez izanagatik uri,
guretzat ala dirudi,
benetan eder ta aundi;
eliza bikain, zoragarri bat,
erriaren erdiz-erdi,
antxen otoitz ta itzaldi,
zutik gizaldiz gizaldi,
aurrera ere ala bedi.
- 4/ Lendik etzaude azia,
jendez berdintsu bizi'a,
ortan daukazu grazia;
izkuntza, jolas ta oituretan
euskal kutsu berezia,
nere gaurko eresia
dezu ondo merezia,
zuretzat detan guzia!
- 5/ Erritikan aldegiñez
biotza jartzen zait miñez,
iñun gozatu eziñez;
berriro azkar etorri nairik
saiatzen naiz alegiñez,
neureekin itzegiñez
bizitzen naiz atsegiñez,
amets goxoak egiñez.

6/ Gizonak duan legia,
maitatu bere erria,
nik maitatzen det neria;
zure barruan azi ninduzun,
zorioneko kabia,
sorleku berdingabia,
doai askoren jabia,
neretzat ezin obia.

7/ Nola zar, ala gaztia,
sortu zaidan abestia
nai det danok sinistia;
mundu onetan gizonarentzat
zein triste dan erbestia!
Sorlekuari eustia
bertan bizi au uztia,
da nere amets guztia.²

² *El Diario Vasco*, 1980-IV-4.

PAGOA, ZUGAITZ ZORAGARRIA

- 1/ Bertso batzuek moldatu ditut
baso batean nagola,
edertasun au agertu gabe
eziñ det utzi iñola;
oinbeste zugaitz zoragarrizko
ikusirik badagola,
baiña danetan bat begizkoa
euskaldunari zaiola,
beste guztien jaun eta jabe
daukagun pago arbola.

- 2/ Ibillaldian joaten danak
baso tartean barrena,
bere begiak zuzentzen ditu
dalako pago orrena,
gure artean ain ezaguna
antziñatik datorrena;
gerri borobil, adar apaiñak,
garbia eta lerdena,
Euskalerrian ezagutzen dan
arbolarik ederrena.

- 3/ Alderdi asko ditu berekin
pagadik dauzkan basuak,
erauntsi eta otzean babes,
beroan itzal gozuak;
udazkenean, danak batean,
perretxiku ta usuak,
ondo berriz garbi-garbia,
an indarrik ez du suak,
pagoa sartzen saia bear du
gaur Euskalerra osuak.
- 4/ Euskalerriko mendi-gaiñetan
eta mendi-magalean,
pagoz jantzitzen saia gaitezen
danok luze-zabalean,
maitasun ori sortu dezagun
baserri eta kalean;
eguzki berroz joaten bagera
jota erdi makalean,
orduan pozik zein ezta jartzen
pagoaren itzalean?
- 5/ Garai bateko euskal basoak
bai zirala bereziak,
baiña oraingo piñudi beltzak
zatar eta itxusiak.
Bazter guztiak artuak dauzka
zikiñak eta sasiak,
lenago ezkurrez mantentzen ziran
piztiak berriz gosiak,
ori emendik kentzen ezpada
galduko gera guziak.

- 6/ Piñuak ez du itzal preskorik,
geitu egiten du berua,
danak nastuta jarriak dauzka
udara eta negua;
gertueneko bear genduke
emendik milla legua,
gure zugaitzak ugaldutzea
jende askoren gogua:
intxaur, gaztaiña, lizar ta aritz,
ta batez ere pagua.
- 7/ Berdin gabeko zugaitza da au
euskaldun jator batentzat,
erri bakoitzak sail on bat jarri
bear du pagoarentzat;
maitasun ori sortu dezagun
toki danetan beretzat,
norbaitek euki lezakena da
beste mota bat obetzat,
euskeran anai bezelaxe da
zugaitz eder au neretzat.
- 8/ Gure inguruko mendietara
jartzen bagera begira,
len esandako zugaitz oriek
urritxo ikusten dira.
Sail koskor batzuk landatu arren
orrek bear du segira,
Diputazio eta Udalak
ortaratuko balira,
lengo itxura biurtutzeko
berriro Euskalerrira.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1980-VI-9, 4 eta 7'gna izan ezik.

AIA TA PELOTA

- 1/ Aia'n txit maite izan da beti
Euskalerriko kirola,
esan liteke berak bizirik
zati bat eutsi diola.
Aitortu bear seme sonatu
askotxo sortu zaiola,
zuzendariak ikusirikan
pelota ilda zegola,
orixe bertan indartu gabe
ez dute utzi nai iñola.

- 2/ Mende ontako irurogei ta
amaseigarren urtea,
Aia'n sortu zan talde bat edo
Pelotako Alkartea;
kirol orixe nola zai zuten
aurrera eramatea,
ori da, ori, utsaren truke
duten dana ematea,
txalogarria derizkiot nik
daukaten borondatea.

- 3/ Eratzailleak asiak dira
oraintxe estu ta presa,
gaztetxo askok bear baitute
maixu batzuen babesa.
Naiz-ta erriak aspalditikan
egin gauz orren ametsa,
pelotarako egon da Aia'n
eragozpen bat traketsa,
erru guztien sustrai izan da
pelotalekurik eza.
- 4/ Aizkora, dema, arri-jasotze,
laisterketan eta segan,
gure erriak erakutsi du
lanaren saria zer dan;
iñork ez pentsa nekatu gabe
gora joango ote dan,
orain gazteak asi zaizkigu
pelotarako joeran,
saia, mutillak, ia ortan ere
itxuraz agertzen geran.
- 5/ Pelota-sua sortu zan Aia'n
oraintxe lau bat urte-ta,
apizionatu artekoa zan
lendabiziko neurketa.
Mailla orretan gero urtero
egin dute Txapelketa,
geroz geiago jendea plazan,
azkenerako beteta,
denbora ortan ori lortzea
ez da gero berriketa.

- 6/ Milla ta bederatzireunekin
larogeigarren urtean,
Txapelketa bat Aia'n ospatu
pelotan gazte artean;
mailla ortako nai zuan dana
sartu ziteken partean,
ainbeste jaitan jokatu dira
egundoko alkartean,
azken eguna izan zan berriz
bestetatik apartean.
- 7/ Aurtengo onek erakutsi du
egundoko garaipena,
jende guztia pozak zoratzen
zan plazatikan irtena.
Pelotari ta gurasoeri
bazkaririkan onena,
uraxe baizan aldez aurretik
agindu zitzaietena,
urrengo urtean berriz jartzeko
danak eskatzen zutena.
- 8/ Erri barruko gazteentzako
da azkeneko auzia,
uztaillaren aurren aldean
da jokatutzen asia;
San Donatotan bukatuko da,
ez da izango luzia,
gazte eta zar, buru-belarri,
kirol onengan jauzia,
geroz geiago izan dedilla
pelotarako gosia.

9/ Artu dezuten bide orrekin
sinistu poztu naizela,
beste erritar guztiak ere
ala egon ditezela.
Ikusten baitet gazteak gogoz
ortara dijoazela,
guk egindako ametsik ezin
egi biurtu bestela,
ia pelotan irteten diran
beste gauzetan bezela.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1980-VII-19 eta 29.

IPARRAGIRRE

1/ Milla zortzireun eta ogeian
ta Agorrillak amabi,
Urretxu maite, zukan jaio zan
Iparragirre Balerdi;
Kale nagusi zarren,
etxea amargarren,
izar bat jarri zan argi,
geiago itzaliko eztana
bizi dan arte Euskadi.

2/ Oso gazterik agertu zuan
askatasun-egarria,
burruka eta lotura baizan
beretzako mingarria;
etzalako pakerik
zegon penaz beterik,
naigabetuta jarria,
zatika baizan batasunean
nai zuen Euskalerrria.

- 3/ Amalau urte zituanean
Urretxua'ko mutilla
gurasoekin bizi izatera
aldatua zan Madrill'a;
ango bizibideak
sorturik naigabeak
eta ainbeste naspilla,
bere txokora aldegin zuan
askatasunaren billa.
- 4/ Madrill utzita berriz onera
etorritako urtean,
guda sortu zan karlista eta
liberal aien artean;
karlistakin gudari
erten zan Jose Mari,
zauritu alako batean;
gaixo—etxean egondua zan
ura sendatu artean.
- 5/ Karlos bosgarren ura zaitzeko
mutillak autatutzean,
talde berezi artan sartu zan
zauriak sendatutzean;
lan artan asperturik,
gitarra bat arturik,
erria agurtutzean,
Prantzi aldean eraso zion
abeslarien antzean.

6/ Prantzia'n zear kantu ta abesti
askatasun-mandatarì,
beraren aurka jarri ziraden
ango ainbat agintari;
gero andik ertenda
Itali'ra juaten da
eta eraso kantari,
musika-zale asko atzetik
zituela zelatari.

7/ Florencia'ko taldea izan zan
barruko artu zuena,
antzezlaritzan atera ziran
Europa'n zear barrena;
Inglatera batean
baztar danak betean
jendearen zoramena,
besteak beste Iparragirre'k
lortutako garaipena.

8/ Gure mutilla erririk erri
emendik juan zan ezkerò,
Euskalerrira biurtutzeko
deika asi Mazarredo;
olerki ta musikan
asko ikasirikan
etorri zan bero-bero,
amabi urte Europa'n zear
ola ibili ta gero.

- 9/ Gero Bilbao'n kanta-aldiak
Jose Marik ematean,
jendea gañez inguratu zan
areto aundia betean;
arturik diru-pilla
laster jua zan Madrill'a,
ama bizi zun artean,
danak berari eman zizkion
guzizko borondatean.
- 10/ Eresi eder bat atera zion
Gernika'ko arbolari,
eta Madrid'en lenengo aldiz
aurkeztu zuan kantari;
ango kafe batean,
txalo bero artean
ta euskaldunak ugari,
erregalirik aundiena au
utzia bere lurrari.
- 11/ Soñu ta bertso erriai deika
pasatzen zuan denbora,
agintariak bildurtu ziran
zer gerta zeiken gerora;
giltzapetu Tolosa'n,
baña azkar ertengo zan,
gero zibillak ondora,
agindurikan erten zedilla
Euskalerritik kanpora.

12/ Euskalerritik erten zanean
juan zan Galizi aldera,
urrena berriz Andaluzi'ra
ta gero Portugal'era;
ta etorri zanean
ekin kantu-lanean,
ta erria entzutera;
ola izan zuen aingerutxo bat
ezagutzeko aukera.

13/ Inguratu zan bere txokora
erbestean ibilita,
biotz barruan zebilkin sua
ezin zuan itzali-ta;
beste danen moduan
maitasun bat goguan
goxua eta polita:
Alegi'n sortu zan lore eder
biotzeko Anjelita.

14/ Aingeru eder maitagarria
berekin lagun artuta,
Arjentina'ra abitu ziran
barku batean sartuta;
Buenos Aires'a eltzean
kristau ziran antzean
jarri ziran uztartuta,
batak besteai lagundutzera
orduan bai beartuta.

15/ Argentina'tik Uruguay'ra
andrearekin jua zan,
aldi batean tabernarekin,
beste saio bat artzantzan;
amar seme-alaba,
bazeukan naiko traba,
mantentzea errez al zan?
Andre gaixoak proatuko zun
bizi izatea zer zan.

16/ Emeretzi urte olaxe igaro
ego-alde Amerikan,
Iparragirre Euskalerriaz
oroitutzen zan andikan;
etorritzeko pozik,
baña etzeukan sosik,
ta lagunak emanikan,
ama zanaren jaiotetxera
biurtu zan bakarrikan.

17/ Txapartegi'ko basarri artan
babesten zan Jose Mari,
baña egunero ikustaldia
Zozobarro'ko bentari;
antxe egun osoan
lagun arte gozoan
gitarra jo ta kantari,
egun barruan izaten zuan
makiña bat bixitari.

18/ Apirillak sei, larogei ta bat
ta zortzireunekin milla,
Zozobarro'ko benta maitean
Iparragirre zan illa;
pake ta lege zarren
deika ibili arren
eta askatasun billa,
lurrean ase etzan artatik
zeruan ase dedilla.

19/ Aren bizitza ez al da gero
guretzat oroigarria?
Ondorenguai utzi zigun ark
eredu maitagarria;
gaurko askok bezela,
erbeste ta kartzela,
zer garai negargarria,
oraingo gisa zapaldurikan
baizegon Euskalerria.

20/ Iparragirre egun batean
sortu zan giza-artera,
antxe txoko bat aukeratuaz
Urretxua'ko partera;
orain mende bat illa,
ori da urte-pilla,
sartu zutela lurpera,
ta berpizturik agertu zaigu
andikan egun urtera.

EUSKALDUNEN ERRUA

1/ Izkuntza au mendez mende
lur maite onek du gorde,
ainbat urtean nola bizi dan
arriturik gaude;
laguntzen ainbeste jende
orain asiak badaude,
ta bearrena ez dute egiten
euskeraren alde.

2/ Batzar aundiak eginda
erriz erri otsegin da,
danak euskeraz bear dutela
emen itzegin da...
Bide ortatik ekinda
nago sinistu ezinda,
gero erderaz mintzatutzea
euskeraz jakinda.

- 3/ Gai au nai nuke aztertu,
ontan ezin naiz aspertu,
euskeragatik zenbat bizia
emateko gertu?
Gero erdera onartu
eta geurea baztertu,
ori guztia nola liteken
ezin det ulertu.
- 4/ «Bai Euskerari!» orruka,
poliziakin burruka,
gauz orregatik artu dituzte
amaika egurka;
izketan astean uka
salduaz erderan truka,
joera orrek zentzudun dana
arriturik dauka.
- 5/ Nagusi izkuntz arrotza,
euskerak dauka morrontza,
gertatzen dana ikusi eta
ematen du lotsa;
artu neurri bat zorrotza,
zabaldurikan biotza,
mendi ta erri entzun dezagun
euskeraren otsa.

6/ Naiz zarra ta naiz gaztia,
bata bezela bestia,
euskeran alde bearrezko da
lanean astia;
betiko galtzen uztia
edo bizirik eustia,
gure eskuan dagoan gauza
da ori guztia.

7/ Telebixta, Irratira,
ta berdin egunkarira,
burutapen bat etorritzen zait
jartzean begira;
euskerak indar berrira
emango lukean jira,
gauza guztiak gure izkuntzan
jarriko balira.

8/ Azkenik nai det otsegin,
ta bakoitzari dei egin,
saiatu edo zabar jokatu
ezpaitegu berdin:
naiz sei izkuntza itzegin
euskeran mintza Euskadin,
gure lurrean lendabiziko
bera izan dedin.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1981-IX-29.

AIA'KO OMENALDIA

Azaroaren 23'an, Aia'n, Maria Aurizene-
nea emakumezkoa omendu zuten, berrogei
ta iru urtean Udaletxean egindako lan ai-
pagarriengatik. Bazkari denboran, bertso
auek eskeiñi nizkion:

- 1/ Aurizeneña, omenaldi au
da zuretzat oparia,
orixe baita erri osoak
egindako eskaria;
nola danentzat zuk izan dezun
borondate ugaria,
ordaindu ezin litekena da
merezi dezun saria,
ain gauza gutxi egin badegu
barkatu zazu, Maria.

- 2/ Zenbat lan pasa ote dituzu
buruan edo eskuan?
Omenaldi au eskeiñi zaizu
oso era legezkuan.
Zartzarorako Aia utzita
beste iñora ez juan,
au baiño toki politagoak
gutxi dira Gipuzkuan,
zorioneko izan zaitea
ementxe urte askuan.
- 3/ Ainbat urteko nekaldiaren
kate gogorak austian,
Galbariotan dezu aulkia
erriko lanak uztian;
zure irudia or egongo da
legorrean da bustian,
eta nik toki apain ortan zu
ain polita ikustian,
agur goxo bat egingo dizut
pasatzen naizen guztian.
- 4/ Guztiok emen bildurik gaude
pakez, anaitasunean,
une berean pozaren pozez
danok alaitasunean.
Nola ez gera gu ibiliko
Maria'n aldamenean?
Laztan goxo bat biotzetikan
zuretzako azkenean,
ta besarkada bero-bero bat
beste danen izenean.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1960-XII-5.

AMAREN AZKEN AGURRA

- 1/ Maite baten bizia,
bai bizi laburra!
Orrek badu berekin
zerbaiten adurra.
Seme-alabentzako
bai dala makurra
azken arnasetako
amaren agurra.

- 2/ Nere ama maitea,
gaur zaude illotza,
ta seme batentzako
zer gauza mingotza.
Ikusi nuanean
zure eriotza,
naigabez lertu bear
zitzaidan biotza.

3/ Ama joaten zaionak
a zer naigabea,
naiz jakin ori dala
munduko legea;
nik ere ura pena
iltzean nerea,
geiena maitatzen du
bakoitzak berea.

4/ Larogei ta amar urtez,
gutxi gorabera,
gogoz agertu ziñan
Jaunaren aurrera.
Arren, eman deizula
zeruan sarrera,
atsegiñetan dauden
santuen artera.

5/ Neretzat ona ziñan
asi eta buka,
zeukazunetik ezer
etzenidan uka;
nik sarri esker txarra
maitasunan truka,
barkatu zaidazula
nago erreguka.

- 6/ Zure borondatea
zefon ikusia,
seme-alabengana
erabat jausia;
biotzean zenduan
amets nagusia,
zeuriei ematea
zeukazun guzia.
- 7/ Sendiarentzat beti
zu gozotasunez,
bere arduraz zeunden
gau eta egunez;
urri izaten ziñan
aberastasunez,
baiña gaiñezkatua
biotz-maitasunez.
- 8/ Zure odola utzi
zidazun zaiñetan,
zure bularrez azi
poz atsegiñetan;
ni orain aurkitzen naiz
negar samiñetan,
ezpaidet zer emanik
zuri ordaiñetan.

9/ Urtez artu zenien
geieneri gaiña,
alare ez ordea
semeak nai aiña;
mundu ontan nekea
bazenduan, baiña
orain izango dezu
guztien ordaiña.

10/ Eriotzaren bidez
Kristok eramana,
orain dei egiten du
maitaliengana;
au da ixil-ixilik
eskatzen duana:
bere gogoan alde
otoitz bero bana.

11/ Agurtzen zaitut, ama,
biotza betean,
maite ninduzun emen
ziñan bitartean;
zeruan bildu nai det
zurekin batean,
antxe gozatutzeko
betiko pakean.¹

1 *El Diario Vasco*, 1981-III-18 eta 19.

UZTAPIDERI

- 1/ Jakin nai nuke Uztapideren
borondatea nork duan,
Euskalerria serbitu dezu,
Manuel, urte-morduan;
eta erria zure goraltzan
zerbait asi dan orduan,
konturatu da gure izkuntzak
zurekin zenbat zor duan.

- 2/ Zuk borondate berdingabea
bazenduan lanerako,
biotza beti zabal-zabalik
Euskalerrri danerako.
Zure sustraitik ez ote dira
landareak aterako?
Ori genduke etorkizuna
euskeraren onerako.

3/ Zeure denboran amaika bertso
zoragarritzko egiña,
zuri entzuten egotea zan
guretzat poz, atsegiña;
baiña egun batez sortu zitzaizun
geiago kanta eziña,
naiago nuke beste ezer baiño
berriz asiko baziña.

4/ Jarraitzailleak badaduzkazu
Euskadin erri danetan,
Zestua'k geien goraldtu zaitu
nola sortu ziñan bertan;
Zarautz'ek berriz txit bereziki
zuri oraingo onetan,
Santa Marina'tar zintzo oiek
maite zaituzte benetan.

5/ Manuel maite, zure bertsoaz
ni bai poztutzen naizela,
ikusten baitet erri-muiñean
bizirik dijoazela.
Jaunak emanda urte on asko
zuretzako ditezela,
gure izarrak argi dagigun
orain artean bezela.

6/ Nik, Uztapide, agur eginda
buka nai det onezkero,
zuk nai zenduken bezelakorik
nigandikan ez espero;
besarkada bat luzatzen dizut
biotzetik bero-bero,
zure maitale nik izan nai det
beti, orain eta gero.¹

¹ 2, 3 eta 5'garrena, *Él Diario Vasco*'n, 1981-IV-12'an argitaratuak.

ZARAUZ'KO ERRUKI-ETXEA

- 1/ Abenduak du ogei ta zazpi,
gertatutzen da igande,
gaur arratsalde sei bertsolari
Zarauz'ko zineman daude;
zale geranok jai ontarako
pozez txoratutzen gaude,
jai-aldi ori zertarako dan
norbaitek lezake galde,
jakin dezala egiten dala
Mixerikordian alde.

- 2/ Erruki-etxe berriarekin
obretan daude asiak,
orrek ondoren izaten ditu
gastu aundi ta luziak;
baña premia asko dagola
gaude garbi ikusiak,
lagundutzea eskatzen digu
danoi lege nagusiak,
babes-tokia izan dezaten
premian dauden guziak.

- 3/ Berri au ondo bukatutzeko
danok dezaiozun bultza,
etxea ondo osatu dedin
betik asita goruntza;
egi biurtzen asia dago,
ori ezta amets utsa,
orretarako ordea bear
berebiziko dirutza,
ori lortzeko bear dana da
erri osoan laguntza.
- 4/ Arinkerian ez artu iñork,
badauka naiko garrantzi,
nik emendik dei egiten diet
nai duten ainbat biotzi,
bai inguruko erriai ere,
ez bakarrikan Zarautz'i;
Erruki-etxea zarrentzat dala
au pentsaturik ez utzi,
orren premian gerta gindezke
danok biar edo etzi.
- 5/ Gai onek neri ematen dit gaur
naiko zertan itzegiña,
nere buruai gertatzen zaio
ori ulertu eziña:
gure zar oiek baztartutzea
etzait gauza atsegiña,
ikusirikan nola daukagun
denok izate berdiña,
biar guretzat izango baita
orain besteri egiña.

6/ Iñork itzik ez dezala egin
Erruki-etxean kaltera,
baizik laguntzen saiatu gogoz
bildurik danok batera;
itxaropen da poza banatu
tristerik dauden artera,
orren premia geitzen dijua
emen urtetik urtera,
geroko zerbait nai duen arek
kontuak orain atera.

MANUEL LASARTE'RI

- 1/ Manuel, zugandikan
naiz egon aparte,
artu nai det parte,
omenaldiak nigan
poza baidakarte;
ezagutu giñala
berrogei bat urte,
ta etzaitut aztuko
bizi naizen arte;
zoriontsu luzaro
jarraitu, Lasarte.

2/ Lasarte sortua da
bertsolari-suan
Leitza'ko auzuan,
gero ura utzita
Aia'ra jo zuan;
gaur Orio'n bizi da
leku erosuan,
danak maitatzen dute
ain era gozuan,
Orio'n bezelaxe
Euskadi osuan.

3/ Omen-egunez gerta-
tzen naiz apartean,
neretzat kaltean,
nere egin bearrak
lotzen nau katean;
besarkatutzen zaitut
biotza betean,
besterik gabe agur
baiña noiz artean?
Bilduko al gerade
alakon batean.

(Aia'n, 1981-V-17)

AIA'KO PELOTA-JAIA

- 1/ Ogeigarren mendeko
larogei ta bata,
garagarrillak zazpi,
beroa galanta.
Pelota-Txapelketan
azkena zala-ta,
jaialdi pozgarri bat
Aia'n izan da-ta,
orra bertso berriak
jai ori dala-ta.

- 2/ Txapelketak asera
martxoan emanik,
igande bat etzegon
jokatzen etzanik;
zazpian zan Pazkoa,
alako egunik!
Azkoiti ta Getari,
Usurbil da Ernani'k,
auzia erabaki
ziguten azkenik.

3/ Bertakorik etzegin
aurten aldarlean,
azken egunez iñor
ezpaizan tartean;
naiz eta ez iritxi,
etzan apartean,
bearrezkoena da
sartzea partean,
ia lortzen dezuten
datorren urtean.

4/ Pelotak ematean
bere bukaera,
abiatuak giñan
Alkar Alkartera
pelotari ta lagun,
guztiok batera,
zopa goxoa eta
bildotsa jatera,
nola gozatu giñan
kontuak atera.

5/ Jan da edan genduan
oitura zarrian,
danok alai ta pozez
pake ederrian;
jendea nola zegin
bertso-egarrian,
batzuk kanta nituan
guztien aurrian,
egun oberik ezin
igaro lurrian.

6/ Eratzailleak sarri
ain lan nekezkotan,
eskertuko zaituztet
nik beintzak askotan,
pelotariak berdin
laztan itzezkotan;
alkar agurtu giñan
aurtengo Pazkotan,
urrengo urtean berriz
biltzeko asmotan.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1981-VI-14.

AIEGI'KO BILLERARI BURUZ.

- 1/Milla ta bederatzireunekin
larogei eta batean,
agorreko illak ogei ta zazpi
zituan egun batean,
Aiegi deitzen zaion auzoan,
Naparroa'ko partean,
ainbat euskaldun bildu giñaden
bazter guztiak betean,
egun uraxe etzait aztuko
zentzurik dedan artean.

- 2/ Kaskar samarra izanagatik
egun artako denbora,
ainbat euskaldun an bildu giñan
Lendakarian ondora;
gutxieneko izango giñan
berreun millatikan gora,
ainbestekorik izan danikan
etzait etortzen gogora,
neurri artakorik ez da egiten
Euskalerritik kanpora.

- 3/ Billera orrek lenago izan du
urte askoko utsuna,
baiña erriak bizirik zeukan
lege zarren oiartzuna.
Berrero azkar esnatua da
euskaldunaren zentzuna,
artzaiak txistu jo dutenean
ardiak dute entzuna,
egun aretan orregatik zan
orrelako erantzuna.
- 4/ Urruti bizi ziran anaiak
orduan giñun aldean,
katalan eta gallekoak e
baziran gure taldean.
Bazter guztiak jendez gaiñezka
goiz eta arratsaldean,
arriturikan jardunak dira
Madrid aldetik galdean,
ainbeste milla jende biltzeko
zer zuten Napar aldean.
- 5/ Geurea dana iritxitzeko
zenbat aldiz burukatu,
indarkeriaz zapaldukan
nai gaituzte purukatu.
Gure izena beste batekin
nai liguteke trukatu,
zenbat alditan gauzak agindu,
ainbeste aldiz ukatu,
eskubideak iritxi arte
burrukarik ez bukatu.

- 6/ Biltoki zelai Aiegi baiña
erriburua Lizarra,
uraxe baizan egun artako
bidazti danen izarra.
Magal goxoan izan genduan
Euskalerriko biltzarra,
askotxo zeuden, begiak malkoz,
ta biotzean txingarra,
ikusirikan egun artako
batasunaren indarra.
- 7/ Pakea eta alkartasuna
egun artan jaun da jabe,
makiña bati arindu ere bai
zeuzkan ainbat atsekabe;
jauntxokeririk gabe guztiok
alkarren morroi-mirabe,
gure izkuntzak izan bear du
orren oiñarri ta abe,
billera orrek zer balio du
euskera mintzatu gabe?
- 8/ Nik ez dakit zan milloi erdia,
edo giñan berreun milla,
euskaldun asko, baiña motela
gure izkuntzaren kurpilla;
bizi-bizirik bear genduke,
ortxe dago erdi illa,
asmo batekin bildutzen gera
lengo lege zarren billa,
lege zarretan lendabiziko
euskera izan dedilla.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1981-XII-4 eta 5.

ZORIONEKO IRRATIA!

- 1/ Gure Irrati ori
ixildu zanean
Euskadi danean,
geroztik egon gera
goibeltasunean.
Ez da ezer berriro
asi zaigunean,
gu poztutzeko ari
diranak lanean,
zoriondutzen ditut
danen izenean.

2/ Danak entzuteko zai
kale ta baserri,
estu eta larri,
guk nai gendun baiño len
ez digute jarri;
jarraitu len bezela
bide jator orri,
lengo zarrei eskerrak
neke-ordaingarri,
ta berriei biotzez
nik ongi etorri!

3/ Ixiltzean esana,
ezpanago oker,
«asiko da laster»,
geroztik oroitu zait
makiña bat bider.
Euskal Gobernu gabe
ez gendukan ezer,
bere laguntzaz orain
aundi eta eder,
egin duanagatik
zazpi milla esker.

4/ Etzegoan uzterik
ainbeste entzule,
baserri ta kale,
artzai ta baso-gizon
eta arrantzale.
Danak une orren zai,
danak orren zale,
asi dan poz orrekin
zenbat malko ale,
ni bezela boteak
ainbeste maitale.

5/ Pentsatuaz betiko
ixilduko zala,
asiko etzala,
zenbat ortan, neroni
lenengo nintzala!
Jainkoak nere deiak
gaur entzun ditzala:
millaka euskaldunek
nai degun bezala,
Irratiak aurrera
jarraitu dezala.

6/ Zuen ixilaldiak
jarri giñun miñez,
eraman eziñez,
asiko zanik ere
iñortxok jakiñ ez.
Ta Euskal Gobernuak
laguntza egiñez,
ara nola asi dan
danon atsegiñez,
agur goxo bat orain
maitasun aundiñez.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1982-II-5.

MUNDUAREN AZKENA

- 1/ Aitortutzen det nere usteak
oker atera leizkena,
baiña zirika asia daukat
kontzientzian eztena.
Nere iritzia agertuko det,
ez det jarri nai bestena,
iruditzen zait laister ote dan
mundu zar onen azkena.

- 2/ Apaiz jaun batek Telebistatik
ala zion bein batean,
munduak zeukan iraupenaren
xeetasunak ematean;
bere azkena noiz izango zan
an galdera egitean
erantzun zuan: «Ez da izango
beste sei milla urtean».

- 3/ Sei milla urtean ez da izango,
oso errez da esaten,
gauza batzuek jarriko ditut
guztiak jakin ditzaten.
Mundu osoa aurkitutzen da
nastualdi gogor baten,
luzatutzeko tankera txarra
ez al du onek ematen?
- 4/ Ori entzunik ni asi nintzan
nere barrua kezkatzen,
eta orrentzat erantzun auxe
gogoak zidan eskatzen.
Zertan jardun da Telebistatik
entzule danak tentatzen,
esaera zarrak egi dirala
ez al du orrek pentsatzen?
- 5/ Erri bakoitzez, taberna, dendak,
jarritzean ateero,
mendi guztiak bide zabalez
erabat bete ta gero,
esaera batek zer dion garbi
jarriko det onezkero:
«azkena gertu dala sinistu
oiek gertatu ezker».

- 6/ Esaera zarrak onela dio
gai astunago batean:
«aurrik batere ez da jaioko
azkenik zazpi urtean».
Onetxek ere ez du ematen
dagonik ain apartean,
ama izateko poza galdua
baita askoren artean.
- 7/ Aurtxorik gabe bizi izatea
gaurko bolara larria,
ondo pentsatzen jarri ezkerro
bai dala negargarria!
Illuna ez al da txori kanturik
gabeko udaberria?
Oraindik askoz illunago da
aurrik gabeko erria.
- 8/ Gizon, abere, arrai, egazti,
jaki kutsutuz pentsutu,
bide, taberna, dendak gaiñezka
ta emakumeak antzutu.
Aurrerapenak daukan indarrez
guztiok gaitu bentzutu,
oiek guztiak ikusi arren
ezin gerade zentzutu.

- 9/ Aurrerapenak sortzen gizonak
asieratik jakin du,
baiña orien ondorioa
orain zuzendu ezin du:
aizea, lurrak, erreka, ibaiak,
ta itxasoak zikindu,
bide ontatik jarraitzekotan
mundu onenak egin du.
- 10/ Antikristoa etorri dala
garbi gentzake ikusi,
gizon geienak buruz aurrera
ondasunengana jausi;
ori lortzeko gaur egiten da
ainbeste gauza itxusi,
orretxen morroi dago gizona,
dirua gure nagusi.
- 11/ Atomikazko lerkariekin
bazter guztiak beteta,
izarrik-izar gelditu gabe
beste ainbeste trepeta.
Mundu onetan zer gerta leiken
danok bildurrez gaude-ta,
gizonak laister entzun bear du
aingeruaren tronpeta.

12/ Mundutar danok bear genduke
alkarrentzako oparo,
baiña doai au, zoritxarrean,
gugandik urruti dago.
Era onetan ezin gentzake
jarraitu emen luzaro,
abailla ontan mende bat geio
ezin munduak igaro.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1982-III-7 eta 10.

ZARAUZ'KO KIROLDEGIKO ARITZARI

- 1/ Gaur urtebete Zarautz'ko errian
kiroldegi bat berria,
garagarrillan ogeian zuten
zabaldu eta jarria.
Zar eta gazte, guztientzako,
ain da gauza pozgarria,
ori dala-ta bertsoen gaia
da nigana etorria,
gertakizunen berri emanda
jarri nai nuke erria.
- 2/ Garagarrillan emeretzia
nai det adieraztea,
Kiroldogiko aurrean jarri
zuten or aritz gaztea;
sei bat metro luze egiña,
garaia txarra bestea,
ori seguru igartutzea
zan jakintsuen ustea,
ostro ederrez jantzia dago,
merezi du ikustea!

- 3/ Aritz gazte au berez sortua
Laurgain mendiko lurrean,
gero Zarautz'a aldatu zuten
pala batën muturrean.
Ez ote zeiken itsatsi eta
danak erdi bildurrean,
orain an dago tinko ta lerdën
bere luze-laburrean,
gure zugaitzen oroigarritzat
Kiroldegiko aurrean.
- 4/ Aritzbatalde izenekoa
Kiroldegi ingurua,
ta izen orren aurkezpena da
aritz orren elburua.
Zugaitz aundi bat egingo balitz
jasoaz bere burua,
otz gogorretan babestutzeko
etorritzean negua,
eta udaran itzalpe goxo,
asten danean berua.
- 5/ Begi askoren atsegingarri
orain aritza an dago,
suerte txarrik ez izatera
geroz eta ederrago.
Agintari ta arduradunei
auxen eskatuaz nago:
gaur egunean zugaitz orien
gosea baldin badago,
saia zaitetze erri ondoan
sartutzen aritz geiago.

6/ Danok ardura artu dezagun
eta egin alegiña,
zugaitz oiekin jantzita jartzen
al dan saillikan aundiña;
oien bitartez garbitzen baita
erriko arnas zikiña,
kanpotarrentzat pozgarri eta
bertakoentzat, jakiña,
obe genduke garai dan arte
ortaratuko bagiña.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1982-VI-19.

JUAN JOXE UDARREGI

1/ Aia'ko Uztaburu
Juan Joxeren kabi,
an ikusi baizuan
lenengoz argi;
bertan bizi ondoren
bost urte ta erdi
Usurbilla aldatu,
esateko garbi;
geroztik lantegi
bi auetan segi,
nola nekazari,
ala bertsolari,
olaxe bizi ta il
zan Udarregi.

2/ Aia'n jaio zan baiña
gero Usurbilla
txikitan aldatu zan
gure mutilla.
Gaztetxotan asi zan
itz neurtuen billa,
buru azkarrekoa,
bertsotan abilla,
jator da umilla,
Udarregi'n mailla
berdindutzen zailla,
zartu gabe illa,
betiko eztaietan
gerta dedilla.

3/ Juan Joxeren sustraia
Aia'tik asi zan,
ni ere bertakoxe
semea izan.
Zer ikusia badet
nik aren bizitzan,
ara gure loturak
nolatan dabilzan;
gizon ura zein zan
oroitu ba'nintzan,
Udarregi'n aintzan
ni bertsolaritzan,
orain baiño lenago
asiko nintzan.

4/ Gizonki jokatua
zu gizatasunez,
iñoiz jardun gabea
bertso lizunez;
aitormen ori askok
egiten dizunez
beti mintzatu ziñan
izketa txukunez;
bear zan zentzunez
besteri entzunez
eta erantzunez
egiten zendunez,
olako gutxi daude
gaurko egunez.

5/ Udarregi bertsotan
saiatu zan gogor,
erriak gizon ari
ez al dio zor?
Zerbait egin bearra
daukagu derrigor,
nik ez nuke onekin
mintzerik nai iñor;
ikasbide bat or,
baldin bagera nor,
ni ontara nator,
bizi leike jator,
Juan Joxeren antzeko
asko baletor.

6/ Aia'ko seme zala
dago nabarmena,
naiz Usurbill'en egin
bizi geiena.
Neri ezin zait aztu
aren oroimena,
Aia'k egin bear dio
bere aitormena,
eskeñiz omena
al danik onena,
Udarregi dena
merezi duena,
goimaillan jarritzeko
aren izena.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1982-VII-28.

BERTSOLARITZARI BURUZ

1/ Gau eta egun Jaungoikuari
ari naiz beti erreguz,
gure arrazaren udaberria
ez uzteko galtzen neguz;
negu txar ori gañean degu
ta gañera geure erruz,
bertso batzuek jarriko ditut
erru gaizto oni buruz.

2/ Arraza onek berekin badu
uda berrizko jazkera,
ta jantzi ori besterik ezta
baizikan gure izkera;
negu gaiztotik gorde dezagun
berdin gabeko euskera,
ori egiten ez baldin bada
seme jatorrak ez gera.

- 3/ Bertsolaritza da Jaungoikuak
guri emandako grazia,
gure izkuntzak ortikan dauka
arnasa eta bizia;
gure gaitzaren iturburua
dago garbi ikusia:
bertsoa ondo ez maitatzetik
galtzen ari da guzia.
- 4/ Gure izkuntzak bere barruan
naiz eduki milla pitxi,
bertsoak duan aunditasunik
beste inork ez du iritxi;
gaur bertsolari asko da baña
bertso-maitalea gutxi,
eta gaitz onek ez al dizkio
euskerai ateak itxi?
- 5/ Gaurko gaztetan ez al da gero
gaitz txar au naikua sartu?
Aixa ikasten dute kanpoko
edozein dantza ta kantu;
eta bertsoai jaramonik ez,
ontan egin zagon kontu
era orretan ezin leikela
gure izkuntzarik indartu.

7/ Atze-erritik sartu zaizkigu
oinbeste kantu ta jolas,
gaurko askotxo oiek ikasten
saiatzen dira ajolaz;
bertsorik berriz bide ortatik
ezin maitatu iñolaz,
gu euskaldunen antzikan gabe
jarriko gera denboraz.

8/ Gazteai ezin diogu jarri
traba edo zailtasuna,
lendabiziko, zar eta gazte,
bear da anaitasuna;
erakutsi ondo euskera garbi
azalduaz maitasuna,
era orretan sortuko zaie
bertsoaren naitasuna.

ARRANTZALEAK

- 1/ Nere begiko arrantzaleetzaz
orain nai nuke nik mintza,
itxasgizonen naia da eta
baietz eman nien itza.
Arrantzatikan bizi diranak
dabilkiten zorigaitza,
aspalditxoan estu ta larri
sendi askotxo dabilta,
ta bertsoetan agertuko det
arrantzalien bizitza.

- 2/ Bertso berriak jartzeko gaia
arrantzak eman dit, orra,
arrixku aundiko lantegia da
ta bizimodu gogorra.
Irabazteko asmotan jardun,
iñoiz azkenean zorra,
naiz giro txarra arrai ondoren
irtetea derrigorra,
arrantzan asi eta askotan
gero gaiñetik zigorra.

- 3/ Arrantzaleak danetik daude,
baserri eta kaleko,
eta sendi bat dago atzetik
geienen arrantzaleko.
Itxasora joan, saioa egin,
zenbat biaje kaleko!
Ainbeste neke eta izerdi
irabazirik gabeko,
zigorran ordeztu lagundutzea
ez al lukete obeko?
- 4/ Arazorikan latzena dute
Europa'ko Merkatua,
oien zigorrez arrantzalea
oso dago nekatua;
lengo sail asko itxasbarruan
gaur dute debekatua,
Prantza berriz gurien aurka
dago sarri kekatua,
beti aundia izaten baita
txikiaren pekatua.
- 5/ Ez det esango arrantzaleak
danak zuzenak diranik,
artaldietan tartean beltzak
beti ikusi ditut nik;
batzuen erruz danak zigortu,
ez dago gizatasunik,
ontziak ainbat milloi kostata,
itxasoz ezpada lanik,
argi ta garbi ikusitzen da
ez datorrela gauz onik.

6/ Alkar babesten asi gaitzen
danok anaiak geranez,
ta arrantzale maite, kutunak,
nola gogoan izan ez?
Arazo ori dabilkitenak
mintzatzen dira apaneaz,
gauza guztiak zuzendu dira,
telebistatik esanez,
sarritan auxe gertatutzen da:
agindu eta eman ez.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1983-II-15.

AIA'KO TXIKIA

- 1/ Irurogei bat urtez goikoak
askotxok bear gogotan,
gure plazetan ibili zana
ainbat korrika jokotan.
Esango nuke berdingabea
izandu zala gauz ortan,
Euskalerriko txapelduna zan,
gaiñera urte askotan,
argatik gera omenaldi bat
eskeiñitzeko asmotan.
- 2/ Uztaillaren amazazia
da gogoan artzekoa,
Juan Manuel Txikia baita
Aia'n omendutzekoa.
Erri aldetik egun aundi bat
da danok osatzekoa,
seme, alaba, billoba, aide
ta berdin gaiñontzekoa,
danok bildurik gora dezagun
Azpiroz biotzekoa.

3/ Garai batean azkar ibiltzen
etzegon orren berdiñik,
danak atzean uzten zituan
nai zituanak egiñik.
Orduan zuan sasoi on ura
gaur daduka aldegiñik,
moteldurikan aurkitutzen da
etxetik irten eziñik,
zeiñen biotza ez da samintzen
au ala dala jakiñik?

4/ Ogei bat urte pasa zituan
Txikiak korri ta korri,
bitarte artan aurpegi eman
ainbat aurkari gogorri.
Orregatikan omenaldi au
egitera goaz orri,
nik emendik dei egiten diet
ainbat euskaldun jatorri,
merezi duan gizona da-ta
al dezutenok etorri.¹

¹ *El Diario Vasco*, 1983-VII-16.

KARTA-JOKOA

- 1/ Amorratua naiz ni
jokatzen kartetan,
ta neurritxo batean
au ezta kaltetan.
Ziri batzuek sartuz
alkarri tartetan,
gu beintzat ari gera
makiñat urtetan.

- 2/ Nik au esanarekin
ez iñor arritu,
Lertxundi'k kartagatik
txanpon asko ditu.
Bein galdu dezula ta
etzaitez gelditu,
xoxak nai dituenak
jokuan segitu.

3/ Kartetan pasatzen da
une ederrikan,
neurrian jokatuaz
eztu okerrikan.
Nik ez det utsegiten
illunabarrikan,
gizonak eztu bear
lana bakarrikan.

4/ Lanak egindakuan
etxian afaldu,
ta jokoko txokora
ondoren azaldu.
Batzutan irabazi,
bestietan galdu,
gozatzen gera eta
merezi ez al du?

5/ Batzutan tutian da
bestetan musian,
sarri jarduten gera
bi ordu luzian,
kontraiuai ziri bat
sartzeko pozian,
baña ez degu lortzen
nai degun guzian.

6/ Begiak ateratzen
alkarri begira,
tarte txiki baten zai
kiñua noiz tira.
Galdu aldetik danak
triste erretira,
irabaztunak berriz
arrotutzen dira.

7/ Astean bost bat aldiz
muse eta tute
jokatu: ari gera
dozena bat urte.
Guri begira askok
gozatutzen dute,
olaxe jarraitzeko
esaten digute.

8/ Zenbaitekin asteko
nago bildurretan,
sartuak daudelako
grña makurretan.
Jokatzen dute saltsa
eta gezurretan,
gañera al badute
tanto-lapurretan.

9/ Beti tanto kontatzen
aletak alera,
olakuak ematen
dit neri kolera.
Bein antzeman ezkerro
aldegin kalera,
jokatutzen jardun da
seguru galera.

10/ Zer galdurik ez dute
fama eta diru,
arkitzen diralako
biurturik miru.
Naiz-eta irabazi
lautatikan iru,
orren ondoriua
zer dan badakigu.

11/ Gu jarduten gerade
joko txukunean,
saiorikan onenak
aste-egunean.
Irabazitakuan
umore onean,
alkarri aitzakitan
galtzen degunean.

12/ Karta-joko zaleai
nere aolkuak,
nola erriko eta
ala kanpokuak:
maiean buka bitez
saltsa jokokuak,
zer ikusirik eztu
bear gerokuak.

JUAN PAULO II

1/. Milla beatzireun larogei ta bi
eta Azaroko illa,
beraren seigarrengo eguna
igo da gorengo mailla.
Loiola ondoan bildu giñaden
egundoko jende-pilla,
Erroma'tikan Artzaia etorri
emengo ardien billa,
bere bixita onuragarri
denontzat izan dedilla.

2/ Argitzerako zelaia gañez
ta geienbat euskalduna,
zerbait okerra gertatutzea
gogoratzen zitzaiguna.
Baña danera gertatua zan
giro goxo ta leguna,
gu eta gure ondorengiak
gogoratuko deguna,
Aita Santua lenengo aldiz
etorritako eguna.

- 3/ Aspalditxoan egun orixe
askok zebilkin goguan,
eta azkenik gertatu zaigu
guk nai genduen moduan.
Zar eta gazte danak txoratzan
inguratu zan orduan,
abaro gozo baten ardiak
Artzai onaren onduan,
kristau batentzat une oberik
ezta izango munduan.
- 4/ Gure izkuntzan mintzatua zan
lendabiziko itzetik,
meza santuai asera emanaz
beti oi dan otoitzetik.
Garbitu eta sendotutzeko
anima ta gorputzetik,
Zeruko Aitari eskatu zion
berak biotz-biotzetik,
erri onentzat pake santua
gordeaz zorigaitzetik.
- 5/ Inazio Deuna Arantzazu'ko
Amatxorekin batean,
eskertu eta gora zituen
biotza bete-betean.
Berri on auxe zabaldu zuan
entzule danen artean:
Euskalerrriak jarraituko du
sinimentsu ta pakean,
bi zaindariake bene-benetan
maite ditun bitartean.

- 6/ Eleiz-gizon eta agintari,
zorra daukagu zuentzat,
esker onenak jai-erakuntzan
saiatu diran danentzat.
Baña berezi mintzatu nai det
geronen gotzaiarentzat,
zama aundiña eramatea
gertatu baita beretzat,
danen izenez millaka esker,
On Joxe Mari, zuretzat.
- 7/ Goiz-goizetikan dana gañezka
zelai aundi ta zabala,
bizkorturikan arkitu baizan
gure sinismen makala.
Erri zar onek erantzuna du
nik uste nuan bezala,
seguru nago Aita Santua
pozikan juango zala,
aurrera ere Euskalerrriak
olaxe jarrai dezala.
- 8/ Berri auxe zan Euskalerrira
Erroma'tik zekarrena:
anai bezela gizon guztiak
bildutzeko alkarrena.
Gorroto eta bekaizkeria
degula gauzik txarrena,
egitan alkar maitatutzea
dala gauzik bearrena,
agindu auxe eman da juan zan
Juan Paulo bigarrena.

UGOLDEAK

- 1/ Milla beatzireun larogei eta
irugarrenge urtean,
dagonillaren ogei ta seian,
eurite gogor batean;
uraren mende egonak gera
Euskalerriko partean,
erreka-ibai danak gaiñezka
bazter guztiak betean,
ugolde ori etzait aztuko
zentzurik dedan artean.

- 2/ Berrogei ta amairuko urtean,
urrillaren amalaubez,
Zestua aldean gertatu zanak
utziak giñun naigabez.
«Gipuzkoana» jendez beteta
urak eramanik gabez,
ta oraingoan galera geion
berriak daude emanaz,
alderdi auxe da Gipuzkoa'n:
ildakorikan iñor ez.

3/ Baiña Euskadi'n badira illak
ogei ta amaseitik gora,
beste mordo bat galdutakoa
azaldu gabe iñora.
Sendi ta erriak, ondo zeudenak,
erori dira ondora,
berriro oiek zutikan jartzen
bearko duan denbora...
Amaika aldiz etorriko da
ugolde ori gogora.

4/ Ogei ta amar urte badira
lenago izan zanetik,
orduko gisan ezbearretan
gaur ere alde danetik.
Bear gorrian gelditu gera
uraren ondamenetik,
naiko laguntza ez da irixten
sekula aldamenetik,
berriro ere burua jaso
bearko degu lanetik.

5/ Langabezia lengo arazo
egunetik egunera,
sendi askotxo zeuden sartuak
oso bide illunera.
Ta orain berriz ugolde latz au
lengoen aldamenera,
gerta leikena zearo txarra
ez izatea danera,
iñun dirurik izaten bada
lanez osatuko gera.

6/ Jakintsu bati bein esan nion:
«Ugolde latzak lenago
izaten ziran, ta berriz ere
gertuan ez ote dago?»
Erantzun zidan: «Kontu oiekin,
motell, ixilikan ago,
piñuak urak gelditzen dizkik,
ez dek izango geiago».
Orain zergatik gertatua dan
galde bearrean nago.¹

¹ *El Diario Vasco*, 2-IX-1983.

